

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Tokiko Gobernu Batzarrek 2025eko uztailaren 4an hartutako erabakiaren laburpena: deskarbonizazio-proiektuak garatzeko laguntzak emateko deialdia eta oinarriak onestea 2025. urterako

BDNS (Identif.): 849834.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/849834>).

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>), baita Vitoria-Gasteizko Udalaren webgunean ere (<http://www.vitoria-gasteiz.org>).

Lehena. Onuradunak

Merkataritza-jarduera bat egiten duten enpresa pribatuak, edozein forma juridikoa dutela ere, egoitza soziala eta fiskala Vitoria-Gasteizen badute, eta/edo diruz lagundu daitezkeen jarduerak zuzenean Vitoria-Gasteizko udalerrian kokatutako zentzoren batean egiten badituzte. Horrez gain, eskabideak aurkezteko epea bukatu aurretik balio osoz eratuta egotea, eskabidea tramitzeko prozesu osoan (aurkeztean, ebatzean, obligazioa onartzean eta ordaintzean) EJZn izena emanda egon behar dute, egunean izan behar dituzte betebeharrak fiskalak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Vitoria-Gasteizko Udalarekikoak, eta, azkenik, enpresa txiki edo ertaina izateko eskakizunak eskabidea aurkezten den unean, hots: 250 enplegatutik behera izatea, urteko fakturazioa 50 milioi euro baino gutxiagokoa izatea eta balantze orokorra 43 milioi eurotik beherakoa izatea.

Laguntza jasotzeko ezinbesteko baldintza gisa, A1, A2 eta A3 ataletan jasotako jarduketetan, enpresaren guztizko energia-kontsumoa (kWh) gutxienez ehuneko 10 murriztea justifikatu beharko da, 2024ko ekitaldian erregistratutakoaren aldean. Murrizketa hori enpresa hornitzaileak emandako dokumentu baten bidez egiaztatu beharko da. Dokumentu horrek argi, zehatz eta kuantifikatzeko moduan justifikatu beharko du diruz lagundutako neurria ezarri ondorako aurreikusitako energia-aurrezpena. C1 atalean aurreikusitako jarduketan, enpresak onetsitako aurrekontu bat aurkeztu beharko da, amiantoa kentzeko estalkian instalatu nahi den instalazio fotovoltaikoari buruzkoa.

Berariaz baztertuta geratzen dira sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko entitateak, baita irabazi-asmorik gabeko entitateak eta elkarte- edo lanbide-jarduerak burutzen dituztenak ere elkarteak, lanbide-elkargoak, etab... Kanpoan geratzen dira, halaber, jarduera nagusiztat energia elektrikoa edo termikoa sortzea edo banatzea duten enpresak, beste enpresa edo erakunde batzuei energia aurrezteko eta efizientzia lortzeko irtenbideak eskaintzea jarduera nagusiztat duten energia-zerbitzuak enpresak, eta armak eta material militarra fabrikatzen, merkaturatzen edo finantzatzen diharduten enpresak.

Bigarrena. Xedea

Vitoria-Gasteizko enpresek deskarbonizazio-jarduketak ezartzeko laguntza ekonomikoak emateko baldintzak ezartzea; norgehiagoka bidezko konkurrentzia-erregimena baliatuko da horretarako.

Diruz lagun daitezkeen ekintzak lau ardatz handitan biltzen dira: energia-kontsumoa murriztea, karbono-aztarna kudeatzea eta murriztea, energia-trantsizioa iturri fosilak energia berriztagarriekin ordezkatuz eta NOSak (Naturan Oinarritutako Soluzioak) ezartzea klima-aldaketara egokitzen eta hura arintzen laguntzeko.

A) Kontsumoa murriztea: industria-jarduerari lotutako energia-kontsumoa murriztea, dela ekoizpen-prozesuak hobetuz, dela ekipoak efizienteagoak diren beste batzuekin ordezatzuz, dela energia-kudeaketa optimizatuz edo teknikariak prestatuz.

Bloke honetan, honako jarduketa hauek lagundu daitezke diruz:

- A.1. Makineria ordeztea.
- A.2. Beroa berreskuratzeko sistemak.
- A.3. Eraikinaren egokitzapen termikoa.
- A.4. Optimizazio energetikoko sistemak.
- A.5. Energia-kudeaketa ISO 50001.
- A.6. Langileen prestakuntza teknikoa.

B. Karbono-aztarna: industria-jarduerari lotutako zuzeneko eta zeharkako emisioak identifikatzea eta murriztea.

Bloke honetan, honako jarduketa hauek lagundu daitezke diruz:

- B.1. Hirugarren (3) mailako karbono-aztarnaren kalkulua.
- B.2. Gas fluordunak ezabatzea edo haien ordez alternatiba jasangarriagoak ezartzea.

C. Trantsizio energetikoa: tokiko industrian erregai fosilen erabilera murriztea, energia-iturri berriztagarrien aldeko apustua eginez.

Bloke honetan, honako jarduketa hauek lagundu daitezke diruz:

- C.1. Amiantodun estalkia kentzea.
- C.2. Klimatizazio-ekipoak ordeztea.
- C.3. Birkarga-puntuak dituzten panel fotovoltai kodun aparkalekuak instalatzea.
- C.4. Energia berriztagarriak prozesu termikoetan integratzea.

D. NOS (Naturan Oinarritutako Soluzioak) ezartzea: naturan oinarritutako soluzioak ezartzea eta mantentzea. Soluzio horiek, klima-aldaketara egokitzen eta hura arintzen laguntzeaz gain, onura ekosistemiko eta sozial garrantzitsuak sortzen dituzte.

Bloke honetan, honako jarduketa hauek lagundu daitezke diruz:

- D.1. Landarezko estalkiak ezartzea.
- D.2. DJSU bidezko aparkaleku iragazkorak instalatzea.
- D.3. Itxitura naturalak instalatzea.
- D.4. NOSetarako alde zuzeneko bideragarritasun-azterlanak.

Hirugarrena. Oinarriak

2023ko apirilaren 21ean egindako ohiko bilkuran, Vitoria-Gasteizko Udalbatzak Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrari hasierako onespina ematea erabaki zuen. Behin betiko ordenantza 2023ko uztailaren 28ko ALHAOn argitaratu zen (88. zenbakia), eta 2023ko urriaren 1ean jarri zen indarrean. Ordenantzaren xedea da Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzak emateko prozeduraren oinarri arautzaile orokorrak ezartzea.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko uztailaren 4an onetsi zituen deskarbonizazio-proiektuak garatzeko laguntzak emateko deialdiaren oinarriak 2025. urterako.

Deialdia zein oinarriak Udalaren webgunean daude, ikusi nahi izanez gero (www.vitoria-gasteiz.org), eta baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdi honek 400.000,00 euroko zuzkidura du, 2025erako onetsitako udal aurrekontuan erabilgarri dagoen 0821.4331.47142 partidaren kontura (Enpresentzako laguntzak, deskarbonizazioa eta jasagarritasuna).

Norgehiagoka bidezko konkurrentzia baliatuko da laguntzak emateko prozedura gisa. Hortaz, alderatu egingo dira aurkezten diren proiektuak, haien arteko lehentasun-hurrenkera ezartzeko, 15. oinarrian finkatutako balioespen-irizpideen arabera.

Dirulaguntza diruz lagundu daitezkeen gastuen ehuneko 65 izango da (3. oinarrian adieraziak), puntuazio handiena duten proiektuen kasuan; ehuneko 35, gutxienez 30 puntu lortu dituztenen kasuan; eta tarteko ehuneko bat, proportzio linealean, tarteko puntuazioa duten proiektuen kasuan. Nolanahi ere, dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa 40.000,00 eurokoa izango da.

Aurkezten den proiektuak diruz laguntzeko moduko 6.000,00 euroko (BEZik gabe) inbertsioa izan beharko du gutxienez.

Guztira lortutako puntuazio horren arabera ezartzen den hurrenkerari jarraituz emango dira dirulaguntzak, harik eta erabilgarri dagoen aurrekontu-kreditua ahitu arte.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Oinarriak ALHAOn argitaratzen diren egunaren biharamunetik 2025eko urriaren 15era arte (egun hori barne).

Vitoria-Gasteizen, 2025eko uztailaren 15ean

Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta

Turismoaren Saileko Administrazio Zerbitzuko burua

JOSEBA ANDONI GARCÍA-ARDANAZ ARDANAZ